

## IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA: .....

DATA: .....

IZEN DEITURAK: .....

### JOSTAILUAK

①

Jostailurik gabe daude  
Ainhua eta neba txikia,  
baina beraiek egingo dute  
behar duten guztia.  
Zuraz eta kaxaz  
sortu dute gurdia;  
makilaz eta sokaz  
egin dute zaldia;  
eta kortxoz eta hariz,  
habia eta txoria.

②

Paper mordoa hartuta,  
hegazkin eta itsasontzia,  
txapel dibertigarria,  
kometa eta edalontzia.  
hondarrezko gaztelua,  
buztinezko puxtarria...  
Horrelaxe jostatzen dira  
Ainhua eta neba txikia.

### MARRAZKIA

③

-Esadazu, aitona,  
marraskia al da hau?  
Ardia zen egin nahi nuena  
eta honek dirudi astoa.  
-Zaude lasai, alajainkoa!  
Egin duzu eta nahikoa.  
Hartu berriro papera  
eta egin lehenagokoa.  
Eta izan beti gogoan  
aitonak orain esandakoa:  
ekin eta ekin dabilenak du  
arrakasta aldekoa.

① Nortzuk dira "Jostailuak" olerkiko protagonistak?

\_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ .

② Nola lortu dituzte jostailuak?

\_\_\_ Negar eta negar eginez, norbaitek eros diezazkien.

\_\_\_ Beraiek egin dituzte.

\_\_\_ Zintzoak izanda, Olentzerol ekar diezazkien.

③ Zein material erabili dituzte hurrek? Lotu gezi bidez.

Makilak eta sokak

Puxtarria

Papera

Gurdia

Zura eta kaxak

Zaldia

Buztina

Hegazkina

④ Osatu:

Marraskia egin zuen mutikoak \_\_\_\_\_ marrastu nahi zuen,  
baina egindakoak \_\_\_\_\_ zirudien.

⑤ Zein aholku eman zion aitonak mutikoari?

\_\_\_ Gauzak behin eta berriz egin behar direla, ondo egin arte.

\_\_\_ Ez dela ardirik marrastu behar.

\_\_\_ Astoak marrastu behar direla.